

Euskal antroponimoak: *Joanes* izena Euskal **Herrian**

Egilea: AITOR JAURRIETA GOENAGA

Gradua: Euskal Ikasketak

Ikasturtea: 2015-2016

Tutorea: Mikel Martinez

Saila: Hizkuntzalaritza eta euskal ikasketak

Laburpena

Honako lan honetan *Joanes* antroponimoa aztertuko da. Antroponimoek historian zehar hainbat aldaketa jasaten dituzte, dela instituzioek hobetsitako formagatik, hiztunek emandako erabileragatik edota hizkuntzaren beraren ezaugarriengatik. Lan honen helburua *Joanes* izenaren jatorria eta Euskal Herrian izan duen garapena azaltzea izango da, kontuan hartuz euskararen ezaugarriak (fonetikoak, morfologikoak, lexikoak...) eta garai bakoitzeko dokumentuen nolakotasuna. Garaika aztertzeaz gain, geografikoki ere ikusiko da *Joanesen* garapena.

Hasteko, oinarrizko kontzeptu batzuk argitze aldera, Euskal Herriko oinarrizko aldaerak zeintzuk diren azalduko da, baita hipokoristiko esatean lan honetan zer ulertuko den ere. Hipokoristikoak osatzeko bideez ere zenbait argibide emango dira, eskema batekin lagunduaz errazago ulertzeko asmoz. Oinarrizkoa deritzogu bi kontzeptu hauek hasieratik argitzeari lanean murgildu aurretik.

Jarraian, *Joanesen* jatorri kristauaz zenbait zertzelada emango dira; eta honekin loturik, Euskal Herrian San Joan Bataialaria (eta ez Ebanjelaria) santuari egin zaion kultua azalduko da, santu honek euskal lurraldeetan izan duen eragina ikusteko. Izan ere, santu honen izena da gerora gizartean sartu eta hedatu zena, lanean ikusiko diren faktore batzuen ondorioz.

Honen ondoren, *Joanes* izenaren azterketari ekingo zaio garaiez garai. Erdi Aro Betera egingo da atzera latinez idatziriko testuetan izen honen aldaerak ikusteko, nahiz lekukotasunetan ikusiko den moduan aldaera kultua izango den nagusi garai honetan. Erdi Aro Beherean dokumentazioa erabat aldatuko da, eta aldaera herrikoiak eta hipokoristikoak agertuko dira. Garai honetako lekukotasunak oso ugariak direla ohartuko da irakurlea, baina ez Aro Moderno eta Garaikidean bezainbeste. Erdi Aro Beherean agertzen diren aldaera desberdinak Aro Modernoan nola eraldatzen, hedatzen edota desagertzen diren ikusiko da, *Juan* aldaeraren alde.

Aro Modernoaren barnean, *Joanesek* euskal literaturan duen presentzia ere aztertuko da; baita etxe-izenetan edo oikonimoetan duena ere, garai honetan eremu desberdinetan azalduko baita aztergai den izena.

Amaitzeko, Sabino Aranak *Deun Ixendegi Euzkotarran* izen kristauak euskarara egokitu zituenaz, *Juanentzat* zein euskal ordain sortu zuen ikusiko da. Eta ondoren J. M. Satrustegik *Joanesentzat* zein aldaera bildu zituen ikusiko da, Aranaren euskal ordainez

gain lanean aurreko garaietan agertutako aldaera batzuk ere bildu zituela ikusten baita.

AURKIBIDEA

1. Sarrera. Izena duena bada	5
2. Hipokoristikoak eta <i>Joanesen</i> aldaerak sortzen dituzten prozesu nagusiak	5
3. Izenaren jatorriaz eta hedapenaz	8
3.1. Izenaren jatorria eta hedapena	8
3.2. Kultuaren jatorria eta hedapena	9
4. <i>Joanesen</i> bilakaera historian zehar	10
4.1. Erdi Aro Betean (1234 arte)	10
4.2. Erdi Aro Beherea	11
4.2.1. Bizkaia	12
4.2.2. Araba	13
4.2.3. Gipuzkoa	14
4.2.4. Nafarroa	15
4.2.5. Iparralde	16
4.3. Aro Modernoa eta Garaikidea	16
4.3.1. Aldaerak EAeko parrokia artxiboetan	17
4.3.1.1. XVI. Mendea	17
4.3.1.2. XVII. mendea	18
4.3.1.3. XVIII. mendea	19
4.3.1.4. XIX. Mendea	20
4.3.2. Literatura agerpenak	20
4.3.2.1. Autoreen izenez zerbait	21
4.3.2.2. XVI. Mendea	21
4.3.2.3. XVII. mendea	22
4.3.2.4. XVIII. mendea	23
4.3.2.5. XIX. Mendea	24
4.3.3. <i>Juan-/Joan-/Gani-/Mane-</i> oikonimoetan	25
4.3.3.1. Gipuzkoa	25
4.3.3.2. Lapurdi	26
4.3.3.3. Nafarroa	26
4.3.3.4. Bizkaia	27
4.3.4. XX. mendeko berrikuntzak. Sabino Arana eta Jose María Satrustegi	27
4.3.4.1. Sabino Aranaren <i>Deun Ixendegi Euzkotarra</i>	27
4.3.4.2. J. M. Satrustegiren <i>Euskal Izendegia</i>	28
5. Ondorioak	28

1. Sarrera. Izena duena bada

Betidanik, gizakiak inguratzen duen guztia izendatzeko beharra sentitu du. Behar horretatik sortu ziren agian pertsona izenak, edo antroponimoak.

Lekukotasunek demostratzen duten bezala, Akitaniako hilarrietatik gaur egungo antroponimiara asko aldatu dira izendatze-sistemak. Lan honetan Erdi Aro Beteraino egingo dugu atzera. Kristautasuna euskal lurretan sartzean, erlijio eta kultu ohitura berriak sartzearekin batera izen berriak ere sartu zituen, Testamentu eta Ebangelioetako pertsonaien izenak hain zuzen. Hemen aztergai duguna izen horietako bat da: *Joanes*.

Joannes izenaren historia aztertuko da lan honetan, honen jatorri eta hedapenari buruzko zertzelada batzuk eman ondoren lekukotasunak aztertuz garaiez garai. Aldaerak Erdi Aro Betean, Erdi Aro Beherean, Aro Modernoan eta Garaikidean aztertuko dira, dokumentu ofizial desberdinak erabiliz iturritzat; honela, izenaren bilakaera nolakoa izan den ikusi ahal izango dugu, garaika eta lurraldeka. Dokumentu ofizialetako lekukotasunez gain, Aro Modernoan euskarazko lehen liburuak agertzen hasten dira, eta izen honek euskarazko literaturan duen presentzia ere aztertuko da, oikonimoetan (etxe izenetan) duen agertzearekin batera, ezin baita ahaztu euskaldunak etxearekin izan duen lotura.

2. Hipokoristikoak eta *Joanesen* aldaerak sortzen dituzten prozesu nagusiak

Atal honek helburu bikoitza du: batetik, hipokoristikoa zeri deituko diogun zehaztea; eta bestetik, lan osoan zehar azalduko diren *Joanesen* aldaera guztiak zein prozesuren bidez sortu diren azaltzea.

Aldaera hipokoristikoak definitzea ez da lan erraza izan ikertzaileentzat (ikus Salaberri, 2009: 7-14). Dena den, lan honetan aldaera hipokoristikoaz ulertuko dugu: 1) edozein prozesu morfologikoren (gehienetan atzizki baten gehitzearen) bidez sortutako aldaera; edota 2) edozein prozesu fonetikoren ondorioz sorturiko aldaera, zeinetan hiztuna jakitun den aldaera berri bat sortzen duela. Azken zehaztapen hau garrantzitsua da prozesu fonetikoaren barnean bereizi behar direlako prozesu automatikoak eta adierazgarriak. Automatikoetan, izen bereziek gainerako lexikoak jasaten dituen garapen berak jasaten dituzte, eta hortaz, ez dakarte inolako adierarik. Esaterako, gaztelaniazko XVII. mendeko *Juan* /xuˈan/ ez da XIV. mendeko *Joan* /jo.an/en aldaera hipokoristikoa, forma beraren garapena baizik.

Bestetik, adierazgarrien artean hainbat prozesu desberdin aplikatu daitezke: aferesia (*Karmentxu* → *Mentxu*), apokopea (*Asier* → *Axi*), bustidura (*Anton* → *Antton*), aurrekoen edo gehiagoren konbinazioak, eta abar.


Aztergai dugun izenari begira, oinarrizko forma batzuetatik abiatuko gara, euskal tradizioko forma nagusiak *Joanes*, *Joane*, *Joan* eta *Joaniz* direlarik. Oinarrizko forma hauetatik lehendabizi, eratorpen morfologiko bidez sortuko dira *Joan* → *Joaniko*, *Joanto* edo *Joanes* → *Joanesko* bezalakoak. Oinarrizko formen nahiz eratorrien gainean aipaturiko prozesu fonetiko adierazgarriak aplikatu daitezke, eta era honetan *Joanes* → *Ganex* → *Manex* edota *Joanesko* → *Xoanexko* bezalakoak sortzen dira.

Prozesu hipokoristikoetatik kanpo kokatu behar ditugu izen bikoitzak (*Juan* → *Juan Kruz*), prozesu hauek beste izen bat sortzen baitute, ez hipokoristiko bat. Aitzitik, izen bikoitzetatik bai sortu daitezkeela aldaera hipokoristikoak lehenago aipaturiko prozesuen bidez, *Juan Kruz* → *Kankutx* esaterako.

Honen guztiaren gainean, beste parametro bat gainjartzen da. Izan ere, gaztelaniazko, gaskoierazko eta frantsesezko oinarrizko formak ere izan ditzakegu prozesu hipokoristikoen abiapuntu, hauek ere errotuta baitaude Euskal Herrian; *Juan* → *Juantxu* edota *Jean Baptiste* → *Janbattitt* sortuz adibidez.

Honaino esandakoari bi zehaztapen egin behar zaizkio. Batetik, ez da beti erraza bereiztea noiz den prozesu fonetiko bat automatikoa, eta noiz adierazgarria. Adibidez, *Benedikto* > *Benedito* > *Beneito* garapenean argi ikusten da prozesu automatiko bat dugula; eta *Juan* → *Xuan* garapenean aldiz, adierazgarri bat. Baina automatikoa ala adierazgarria al da *Joanco* → *Janco d'Arriague* (Behe-Naf., 1406; Salaberri 2009: 150)? Bestela esan, *Janko* ahoskatu zuen lehen hiztunak aldaera hipokoristiko bat sortu nahi al zuen? Ezin esan.

Izen hipokoristikoen eraketabide desberdinak ikuste aldera, honako eskema hau emango dugu. Eskema honek uste dugu ongi azaltzen dituela lehenago azalduko prozesu morfologiko nahiz fonetikoak:



1. figura. Oinarrizko formatatik abiatuta garapen morfologikoz edo/eta bilakabide fonetikoaz sortu daitezkeen aldaeren eskema.

3. Izenaren jatorriaz eta hedapenaz

Izenak denborarekin asko aldatzen dira; eta atal honetan *Joanes* izenaren jatorriari eta hedapenari buruz jardungo dugu, erroak non dituen jakitean bere historian aurrera egitea errazago izango baita.

3.1. Izenaren jatorria eta hedapena

Faure (2002: 436-437) oinarriztat hartuz, *Joanes* euskal izenak hebraierazko izen batean du jatorria, *Yohanan*-en hain zuzen ere. Azken hau *Yehohanan*-en forma laburtua da, “Jahvé-k barkatu du” esan nahi duena. Antzinako greziarrek Ιωάννης (*Ioannis*) hartu zuten, morfologia moldaketak eginez, *-n-* geminatuz eta bokalarterko *-h-* kenduz (grekoz ez baitzegoen). Gerora, San Jeronimok, jatorrizko izen hebrearrak zuen *-h-*ren jakitun, *Iohannes* idatzi zuen *Vulgatan*, bokalarterko *-h-* berreskuratuz. Latinezko testuetan *Iohannes* eta *Ioannes* formak erabili ziren.

Izena zabaldu zenean, amaierako *-es* horren interpretazio desberdinak egin ziren Europako hizkuntza desberdinetan. Gainera, askotan hizkuntza berean aldaera bat baino gehiago sortu ziren horren ondorioz. Batzuek erro osoa (*Iohannes*) interpretatu zuten; beste batzuek *-s* nominatiboko marka zelakoan, *Iohanne* sortu zuten; eta beste batzuek *-es* gabeko erroa interpretatu zuten, *Iohan* alegia. Gainera, Europako hizkuntza bakoitzean nagusitutako aldaera idatziak/ek hizkuntza horren herri garapen fonetikoak pairatu ditzake(te). Horrela, hainbat forma sortu dira Europako hizkuntza desberdinetan: *John*, *Ivan*, *Giovanni*, *Jean*, *Janis* edo *Juan*. Hizkuntza berean ere oso posible da aldaera bat baino gehiago sortzea. Hau erraz ikusten da Kunzek (1998: 34) dakartzan alemanaren aldaeretan: *Jahn*, *Hans*, *Henne* eta *Hänisch*; edota Faurek (2002: 436) dakartzan Espainiako Erdi Aro Garaiko lekukotasunetan: *Iohannes*, *Iohanna*, *Iohan*, *Ioanne* eta beste hainbat aldaera baitakartza. Euskal Herrian ere badira antzeko aldaerak; Erdi Aro Beteko dokumentuetan, esaterako, *Iohannes* da aldaera nagusia, nahiz *Iohan* ere agertzen hasten den. Euskal Herrian ere sortuko dira gerora herri aldaera gehiago, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Izen biblikoak pertsona izen bezala zabaltzeari dagokionez, Antzinate Berankorreetan eta Erdi Aro Betean Europa osoan izen germaniarrak eta izen erromatar ez-erlijiosoak nagusi zirela gogoratu behar da, baina IX. mendetik aurrera, Errenazimentu Karolingiarrak eta Ordena Kluniarrak sustatuta eta santu kristauen kultura

zela eta izen biblikoak zabaltzen joan ziren.

3.2. Kultuaren jatorria eta hedapena

Izena bera IX. mendetik aurrera zabaldu bazen, kultua lehenagotik zegoen Iberiar penintsulan eta Euskal Herrian. Santuaren (San Joan Bataialariaren) debozioa IV. mendean ekialdean sortu zen eta hurrengo mendeetan mendebaldera zabaldu zen. Epigrafiari esker badakigu bisigodoek hainbat eliza eraiki zituztela santuaren omenez. Bataioaren errituari estu lotuta zegoen, eta honek birsortzearen ideiarekin duen harremana dela eta, fertilitatearen errituekin lotu zen, eta haren jaietako bat (jaiotzarena) ekainaren 24ean ospatzen da; hau da, udako solstizioarekin batera (García Rodríguez 1966: 141-145)¹.

Euskal Herriaren barnean, Bizkaian behintzat, oso goiz sartu zen santu honen kultua, Oizeko Erdi Aro Garaiko nekropolietatik ondorioztatu daitekeen bezala (García Camino 2002: 195-196). Gainera, XI. mendean San Juan de la Peñako monasterioak Bizkaia eta Gipuzkoan zuen eraginaren ondorioz, lurralde hauetan kultua indartu egin zen. Kontuan hartu beharrekoak dira Bermeoko San Juan de Gaztelugatxe; eta Huescako monasterioarekin harremana izan edo ez, Gipuzkoako Pasai Donibane eta Lapurdiko Donibane Lohitzune ere. Donibane Garaziren kasuan, kontuan hartu behar da jatorrizko kultua ez zegoela Donibane Garazi, alboan dagoen egungo Donazaharren baizik (aldaketa honen arrazoiak Orpustanek 1991: 119-121, 123 azaltzen ditu)².

Hagionimoaren aldaera batzuen forma ere kultuaren antzinatasunaren erakusgarri dugu. Adibidez, Haranederrek *Jondoni* euskarazko titulua Joanesi bakarrik ematen dio, besteei *San*. Hegoaldean ere markagarria da Lazarragarena bezalako lekukotasunetan (*Jandoneanez*, ikus §4.3.2.2) higadura fonetiko hain indartsua topatzea, erabilera ugariaren adierazgarri.

1 Esan beharra dago San Juan Bataialariak baduela beste jaiegun bat abuztuaren 29an, bere heriotzarena hain zuzen. San Juan Ebanjelariari ordea, ez zaio kulturik egin Euskal Herri inguruan. Azkenik, Erdi Aro Beherean eta Aro Modernoan egon ziren beste Juan batzuk santu bilakatu zirenak, esaterako: Juan de Dios, Juan Nepomuzenoa, etab.

2 Bide batez, *Donibaneen* jatorriari begira, planteatzen zaigun galdera bat da ea Orpustanek (1991: 121) azaldu bezala *Donibane* < **jaun-doni-johanetik* datorren; edo Errusiako *Ivanen* edota *Gaztela* eta Leongo *Ibañen* gertatu den bezala, jatorria *Ioan-* > *Iuan-* > *Iwan-* > *Iban-* bilakaeran dagoen. Printzipioz, *-b-*ren jatorria bigarren hipotesitik abiatuz hobeto azaldu liteke, baina horrek behartuko gintuzke Errusiako edo Gaztelako formen paralelo bat onartzera, Iparraldean beste inon lekukotzen ez dena.

4. *Joanesen bilakaera historian zehar*

4.1. Erdi Aro Betea (1234 arte)

Erdi Aroaren zatiketa eta honen izendapena aldakorra da historiagileen artean, baina lan honetan Erdi Aro Betea (XI-XIII. mende bitartekoa) eta Erdi Aro Beherea (XIII-XV. mende bitartekoa) bereiziko dira. Bereizketa hau egiteko arrazoia iturrien nolakotasunean datza. Izan ere, bi garaietako iturriak erabat aldatzen dira, aurrerago ikusiko dugun moduan, eta gainera, euskal antroponimiaren zikloekin bat dator.

Erdi Aro Betea X. mendeko datu bakan batzuk eta XI. mendetik 1234 urtera bitarteko datuak aztertuko dira, urte honetatik aurrera iturriak erabat aldatzen direla gogoratu behar dugu eta.

Erdi Aro Betea topatu daitekeen dokumentazio gehiena monasterioetako monjeek idatzia da. Garai honetan, Eliza lurren jabe zen. Horregatik, monasterioetan topatu daitezkeen dokumentuak kontabilitate dokumentuak, errege-agiriak, testamentu pribatuak eta abar dira. Hizkuntzari dagokionez, testu guztiak latinez idatzita daude³.

Erdi Aro Betea, lehenago esan bezala, gehien bat monjeek idazten zituzten testuak, eta idazterakoan aldaera kultua hobesten zuten, nahiz eta herri aldaeraren bat edo beste ere topatu daitekeen testuetan.

Garai honetan *Joanesen* aldaera desberdinak topatu daitezke. Asko grafiazkoak dira, hitz hasierako <J> edo <I> artekoak esaterako. Honelako grafia desberdintasunei ez diegu begiratu lan honetan, bai ordea <n> geminatuei edo <h>ei. Garrantzitsua da esatea parentesi artean agiria idatzi zen tokia eta urtea adieraziko direla, ez lekukotutako *Iohannesen* jaioleku edo jaioturtea.

Erdi Aro Betea zehar gehien topatu ditzakegun aldaerak *Iohanis* (Tutera, 1174; *FDMPV* 77: 51) eta *Iohannes* (Tutera, 1182; *FDMPV* 77: 84) bezalakoak dira, beste edozein aldaera baino gehiago. Ikusten den bezala, amaiera desberdina dute lekukotasunek: *-is* eta *-es*. Azken hau ugariago bada ere, zaila da orokorpenak egitea.

Oso gutxitan bada ere, garai honetan amaierako *-s* gabeko formak ere agertzen hasten dira. Nafarroan *Johane* (Tutera, 1152; *FDMPV* 77: 3) topatu daiteke, erroa *Iohanne* bezala interpretatuz, *-s* gabe. Gerora, ohiko bilakatuko da *Iohan* interpretatzea

³ Atal hau osatzeko Patxi Salaberri (2003) erabiliko da batetik. Bestetik, Eusko Ikaskuntzaren web-orrialdean eskuragarri dauden *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco* (*FDMPV* hemendik aurrera) liburu bakan batzuk erabili dira. *FDMPV*ko lekukotasunen kasuan, dokumentuaren zenbakia zehaztuko da, ez orrialdea: <https://www.eusko-ikaskuntza.org/es/publicaciones/colecciones/fuentesmedievales/>

erroa balitz bezala, *-es* osorik kenduz, baina garai honetan badira horren lekukotasun zenbait Nafarroan: *Ioan de Argedas* (1163; *FDMPV* 77: 26) bezalakoak esaterako. Dena den, urte batzuk beranduago *Johanes* (Tutera, 1183; *FDMPV* 77: 89) topatzen dugu pertsona bera adierazteko.

Datuak oso ugariak ez badira ere, Nafarroan aldaera nagusia kultua da, *Iohannes* alegia. Hala ere, *Johanne* edo *Johan* bezalakoak ere topatu daitezkeela ikusi dugu.

Bokalarteko <n(n)> grafiari dagokionez, formarik zaharretan orokorrean geminatuak agertzen dira. Bildutako lekukotasunen artean, geminaturik gabekoak ere ikusi daitezke, *Joanes* (Tutera, 1134; *FDMPV* 4: 2) aldaeran ikusten den moduan, eta hasieran bakan batzuk badira ere, 1150 ingurutik aurrera oparoago agertzen dira geminaturik gabeak.

Badago zeresanik <h>aren inguruan. Salaberrik (2003) dakarren *Ihoannes Belescones* (980-990; Salaberri 2003: 205) alde batera utziaz, gainerako lekukotasunek <o> eta <a> artean dute <h>a, *Iohanes* (1134-1150; *FDMPV* 77: 15) izenean bezala. Erdi Aro Bete guztian zehar hasperendun (hasperena dela suposatuz) aldaera da ohikoena. <h>dun forma anitz topatu daiteke, *Johan* (1169; *FDMPV* 77: 38) esaterako. Baina *Joan Chebusca* (1163; *FDMPV* 77: 26) bezalako bokalarteko <h> gabeko aldaerak ere topatu daitezke, nahiz eta garai honetan oso ohiko ez izan.

Esan beharra dago bi forma desberdin edo gehiago erabiltzen zirela dirudiela. Lehenago ikusi dugun adibideak berriro ekarriz, *Ioan de Argedas* (1163; *FDMPV* 77: 26) eta *Johanes* (Tutera, 1183; *FDMPV* 77: 89) ez ezik, *Johan* (1191; *FDMPV* 77: 115) ere topatu dezakegu. Lekukotasunetan bokalarteko <h>az gain, erroaren aldaera ere desberdina dutela ikusten da bigarren lekukotasunaren eta beste bien artean.

Datuak ikusita, orokorpenak egitea zaila da, baina argi ikusten da lehen lekukotasunak *Iohannes* edo *Iohannis* bezalakoak zirela. Aldaera hauek, denborarekin amaierako *-(e)s*, <n(n)> geminatua edo <h>a galdu zituzten, baina Erdi Aro Betea ez da garairik egokiena aldaera herrikoiak ikusteko, gutxi batzuk ikusten badira ere.

4.2. Erdi Aro Beherea

1234. urtean Champañako dinastiak Nafarroako Erresumako tronua hartzean, berrikuntza ugari ekartzen ditu administraziora. Administrazio berri horretarako frantziar funtzionario ugari etorri ziren. Lehenago ez zeuden errolda eta erresumako

kontuak idatziz biltzen hasi ziren, eta dokumentazioa ikaragarri ugartu zen aurreko mendeetatik hona. Erdi Aro Behereko iturriak jada ez zeuden latinez, nagusiki Nafarroako erromantzez eta gaskoieraz baizik. Honela, aldaera herrikoiak oparoago azaltzen hasten dira.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hiribilduak sortu ziren hurrengo mendeetan; esaterako, Gasteiz (1181ean) edota Tolosa (1256ean); eta honekin batera hiribilduetako fundazio-gutunak eta foruak, udal-artxiboak eta abarreko agiriak idatzi ziren.

Lekukotasunen bilketa, lehenago bezala, *FDMPV*tik egin da, baina baita Carrasco Pérezen (1973) *La población de Navarra en el siglo XIV* lanetik ere⁴.

Ikusiko dugu aurreko mendeetan *Iohannesek* (aldiera kultuak) zuen nagusitasuna Erdi Aro Beherean galdu, testu gehienak erromantzez baitaude eta aldaera kultuaren ondoan herri aldaerak ere agertuko baitira.

Ikus dezagun, bada, probintziaz probintzia.

4.2.1. Bizkaia

Bizkaian XIV-XV. mendeetako datuak bildu dira gehien, nahiz baden XIII. mendeko daturik ere.

Bizkaian ikusi daitekeenez, aurreko garaian agertzen ziren *-es/-is* amaierak desagertu egiten dira Erdi Aro Beherean. Bildutako lekukotasunen artean, Bilbo Handian ez dago *Iohannes* edo antzekorik. Probintzian ordea, *Joanes* (Lekeitio, 1434; *FDMPV* 126: 39) gutxi batzuk ikusi daiteke; baita *Juane* (Burtzeña, 1284; *FDMPV* 126: 1) ere, amaierako *-s* gabe. Hala ere, *FDMPV* 126n agertzen diren aldaerak *Johan*, *Iohan*, *Joan* edo *Juan* dira.

Joan eta *Juanen* artean, biak dira ohikoak (bokalarteko <h> gora-behera) Bizkaian, baina XV. mendearen amaieran batez ere, *Juan* aldaera nagusitzen da. Probintzian zehar, XIII. eta XIV. mendeetan ere *Juan* eta *Joan* aldaerak antzeko kopuruan agertzen dira.

Bizkaian, Erdi Aro Beherean, bokalarteko <h> desagertuz joan zen pixkana. *Johan* (Bilbo, 1387; *FDMPV* 90: 38) bezalako lekukotasunak topatu badaitezke ere, aldaera ohikoenak *Juan* (Arrigorriaga, 1458; *FDMPV* 90: 86) bezalakoak dira, bokalarteko <h> gabekoak alegia.

4 Dokumentu hauen hautaketa probintzien arabera egin da, probintzietako puntu desberdinetako lekukotasunak bilduz.

Garai honetan, <nn> geminatuaren patua ere parekoa da. Geminatuak *Lope Yuannes d'Aguirre* (Bilbo, 1353; *FDMPV* 90: 24) bezalako patronimikoetan bakarrik topatu daitezke, /ɲ/ adierazteko. Honekin loturik, aipatzekoa da *Ibañe*, hasieran beste aldaera herrikoi bat zena, deituren eremura mugatu zela (Faure *et alii* 2001: 447-448). Errusiako *Ivanen*, eta agian (ikus §3.2) Iparraldeko *Donibaneetan* bi paralelo burujabe dituen bilakaera hau gertatu zen kontsonante bihurtu zena bigarren segmentua delako, ez lehena. Honekin lotuta, gure datuen artean, aipaturiko *Lope Yuannes* eta *Joan Yuanyes de Meçeta* (“alcalde Joan Yuanyes de Meçeta vecino de la villa de Motrico”; Bartzelona, 1493; *FDMPV* 130: 42) lekukotasunetan ikusten da jada aldaera herrikoiaren espezializazioa.

XV. mendean hipokoristikoak agertzen hasten dira testuetan. Ohikoena *Juango* (Portugalete, 1488; *FDMPV* 15: 63) bezalako hipokoristikoak dira, -go atzizkiarekin; baina *Joaneco* (1430; *FDMPV* 126: 29), edota *San Juanche* (Berritxu, 1475; *FDMPV* 126: 52) ere topatu daitezke.

4.2.2. Araba

Arabian XIV-XV. mendeetakoak dira bildutako lekukotasun gehienak, baina baina badira XIII. mendekoak ere. Arabako bilketa Zuia-Gorbeialdea, Agurain eta Mendialdeako kuadriletan egin da; hau da, Iparralde eta Ekialde inguruan.

Aurreko garaian agertzen zen aldaera kultua, *Johannes*, gutxitan agertzen da, eta denak latinezko testuetan. Lekukotasun ohikoenak *Johan/Joan/Juan* itxurakoak dira.

Bokalarterako <h>az, XIII. mendean honen erabilera da nagusi, baita XIV.ean ere, beti ere *Johan* (Gasteiz, 1340; *FDMPV* 18: 51) bezalakoetan, ez *Juanekin*. XIV. mendearen amaieran ordea, <h>aren erabilera gutxituz doa, *Joan* (Gasteiz, 1332: *FDMPV* 18: 46) agertuz.

<nn> geminatuak patronimikoetan (Bizkaian bezala) eta latinez idatziriko testuetan agertzen dira; bestela, ez dago geminaturik Araban bildutako lekukotasunetan.

Hipokoristikoak, gutxitan agertzen badira ere, XV. mendearen erdialdetik aurrera daude lekukotuta, *Joancho* (Gereñu, 1456; *FDMPV* 88: 6) eta *Juanto* (Kanpetzu, 1481; *FDMPV* 88: 14) bezalakoak nagusiki.

4.2.3. Gipuzkoa

Gipuzkoako lekukotasunak XIV-XV. mendeetako Bidasoa Behereko, Tolosaldeko, Ataungo, eta Urola Kosta eta Mutrikuko dokumentaziotik bildu dira.

Orain arte ikusitako probintzietan bezala, *Iohannes* aldaera latinez idatziriko testuetan edo patronimikoetan bakarrik agertzen da. Bidasoan *Juanes* (Errenteria, 1456; *FDMPV* 32: 44) topatu daiteke, *-es* amaierarekin oraindik ere. Eskualde berean *Johane* (Apalategi etxea, 1401; *FDMPV* 49: 90) ere topatu daiteke, erroa *-e*-rekin interpretatuz. Gainerakoak *Iohan/Joan/Juan* itxurakoak dira.

XIV. mende amaieratik aurrera *Joan* eta *Juan* oso ohikoak, eta XV. mendean aldaera nagusi ziren, biak antzeko kopuruan, bildutako lekukotasunetan behintzat.

Bokalarateko <h> XIV. mendean askotan ageri da *Iohan* (Azkoiti, 1325; *FDMPV* 45: 5) bezalakoetan, <h>duna aldaera ohikoena da idatzian. XV. mendean ere agertzen bada ere, <h>dun aldaerak nabarmen gutxitzen dira, *Juan* (Tolosa, 1470; *FDMPV* 65: 18) bezalakoak agertuz. Esan beharra dago, *Juan* aldaera ugarien Gipuzkoako mendebaldeko dokumentuetan agertzen dela. Gainerako eremuetan *Juanekin* batera *Joan* ere ageri zaigu.

Aurreko probintzietan ez bezala, bokalarateko <nn> geminatuak presentzia handiagoa du Gipuzkoan. Latinezko aldaeretan agertzen da, *Iohannes* (Tolosa, 1460; *FDMPV* 65: 12) bezalakoetan; eta patronimikoetan /j/ adierazteko. *Juane* (Oiartzun, 1406; *FDMPV* 32: 27) bezalako batzuetan ere geminatua dago, baina *Joane* bezalakoak ohikoagoak dira. Dena den, geminatu gehien hipokoristikoetan ikusten da, *Juanechon* (Irun, 1481; *FDMPV* 64: 5) bezala.

Izen ttipiei begiratuz, askoz ugariagoak dira idazkietan Araban eta Bizkaian baino. *Juanto* (Andoain, 1475; *FDMPV* 45: 40) eta *Juangorekin* (Zumaia, 1495; *FDMPV* 139: 53) batera *Iohaniya* (Alkiza, 1396; *FDMPV* 36: 37), *Johannet* (Apalategi etxea, 1401; *FDMPV* 49: 90) edota *Xoaneguico* (Irun, 1481; *FDMPV* 64: 5) agertzen zaizkigu, beste askoren artean. Esanguratsua da ekialdean hipokoristiko gehiago daudela, eta Iparraldearen hurbiltasunagatik ote den pentsatzekoa da, aurrerago ikusiko den bezala, ekialdean hipokoristikoen erabilerak (edo dokumentuetan agertzeko joerak) gora egiten baitu.

4.2.4. Nafarroa

Nafarroan ere batik bat XIV-XV. mendeetako datuak bildu dira, nahiz baden XIII. mendekorik ere. *FDMPVz* gain, Carrasco Pérezek argitaratutako XIV. mendeko (1973) erroldak erabili dira.

Lehenago ikusi bezala, *Iohannes* latinezko testuetan agertzen da garai honetan. Hala ere, *Johanes* edo *Joanes* ere topatu daitezke erromantzezko testuetan ere. Gainerako aldaerak *Johan* itxurakoak dira.

Nafarroan bildutako lekukotasunen artean *Juan* gutxi topatu daitezke, eta XIV. mende amaieratik aurrera agertzen dira. Gehiengoak *Joan* dira, bokala *-o-* > *-u-* bilakatu aurretik *-a-*ren eraginez.

Bokalarterko <h> aldairak dira ohikoen garai guztietan, baita XV. mendean ere. XIII-XIV mendeetan *Johan* (Caparroso, 1366; *PNS-XIV*: 433) bezalakoak topatuko ditugu nagusiki. Azken honen itxurakoak dira Nafarroako XIV. mendeko lekukotasun gehienak merindade guztietan⁵, *Johanan* (Lizarra, 1366; *PNS-XIV*: 609) ere ikusten den bezala.

Mende berean ere <h> gabeko *Joan* (1344; *FDMPV* 111: 17) topatu badaiteke ere, XV. mendetik aurrera <h> gabeko aldaerak nabarmen egiten dute gora, *Juan* (Tutera, 1436; *FDMPV* 96: 265) eta *Joan* (Iruñea, 1482; *FDMPV* 96: 309) bezalakoak ugarituz. Dena den, esan beharra dago XV. mendean ere *Johan* bezalakoak oso ohikoak direla.

Bokalarterko <nn> ere gutxitan agertzen da idazkietan. Latinezko testuetan ere *Johanes* (Iruñea, 1370; *FDMPV* 111: 23) ikusi daiteke, geminaturik gabe. Gainerako testuetan ere ez da batere ohikoa <nn> geminatuak topatzea.

Hipokoristikoen erabilerari dagokionez, esan beharra dago XIV. mendeko erroldetan jada agertzen direla Iruñeko eta Lizarrako merindadeetan. Lizarrakoan oso urriak dira, baina Iruñekoan *Johanche* (Arizkun, 1366; *PNS-XIV*: 531) edo *Johanet* (Elizondo, 1366; *PNS-XIV*: 532) bezalakoak agertzen dira Baztan eta Bortzirietan. Hurrengo mendearen hasieratik merindade guztietan agertzen dira forma hipokoristikoak, adibidez: *Juanco* (Gares, 1412; *FDMPV* 96: 242) edota *Johanot* (Tafalla, 1460; *FDMPV* 111: 51).

5 XIII-XV. mendeen bitartean 4 ziren Nafarroako merindadeak: Iruñekoa, Lizarrakoa, Zangozakoia eta Tuterakoa. XV. mendean sortu zen Oliteko merindadea aurreko azken hiruetako herri batzuk batuta. Beraz, XIV. mendeko datuak direnez Carrasco Pérezek (1973) dakartzanak, 4 merindadeetaz jardungo dugu, Olitekoa kontuan izan gabe.

4.2.5. Iparralde

Iparraldeko probintzietan, Lapurdi eta Nafarroa Behereko dokumentazioan egin da bilketa, *FDMPV* eta *Onomastique du nord du Pays Basque (XIe-XVe siècles)* (2011) baliatuz. Lekukotasunak XIII. mendekoak eta XIV-XV. mendeetakoak dira, azken mendeetakoak batez ere.

Johannes (Garro, 1249; *ONPB*: 324) bezalakoak XIII. mendean agertzen dira nagusiki, baina baita hurrengo bi mendeetan ere, gutxiagotan bada ere. Badira *Johane* (Lexarre, 1338; *FDMPV* 25: 4) bezalakoak ere, erroan -s-rik gabekoak. Gainerakoak *Johan* itxurakoak dira.

Esanguratsua da Iparraldeko probintzietan bokalarteko <h>k duen presentzia. Lekukotasunen gehiengoak du <h>, *Johanen* (Oztibarre, 1361; *FDMPV* 25: 20) bezala. Oso gutxi dira XIV. mende amaieratik aurrera agertzen diren *Joan* (1406; *FDMPV* 59: 354) bezalakoak.

Bokalarteko <nn> gutxi agertzen zaigu Iparralden ere, bokalarteko posizioan <n> egoteko aukera gutxi baitago. Geminatudun formak Erdi Aro Behereko lehen mendeetan agertzen dira gehien, orduan ere gutxitan agertzen badira ere.

Iparralden, Gipuzkoan bezala, hipokoristikoen erabilera oso ohikoa da. XIV. mende erdialdetik aurrera agertzen dira, ugari hasieratik. Hipokoristikoak osatzeko sistemari dagokionez ere, oso aberatsa da Iparralde: *Johannicot* (1376; *ONPB*: 281), *Johanc* (Donibane Garazi, 1378; *FDMPV* 25: 95), *Johanot* (Ortzaize, 1381; *ONPB*: 328), *Johanoyes* (Londres, 1396; *FDMPV* 59: 278) edo *Johanicox* (1434; *FDMPV* 59: 339) forma hipokoristikoak dokumentatuz.

4.3. Aro Modernoa eta Garaikidea

Dokumentazioari dagokienez, asko ugaritzen dira lekukotasunak garai honetan. XVI. mendetik aurrera herritarren erregistroak egiten hasten da parroketan, Trentoko Kontzilioa zela eta, herritarren jaiotze-, heriotza- eta ezkontza-partidak gordetzen baitziren. Erregistro hauetako jaiotze-partidetan gizabanakoaren eta honen gurasoen bataio-izenak eta abizenak (aitarena + amarena normalean) jasotzen ziren.

Frantzian 1789tik aurrera, eta Espainian 1870etik aurrera, Erregistro Zibilean bildu ziren datu hauek guztiak, Estatuak bereganatuz funtzio hau.

Antroponimoei begiratzuz, XVI. mendetik aurrerako agiri ofizialetan estandarizaziorako joera ikusten da. García Gallarínek (2009: 98) azaltzen duen bezala, pertsona izen-aldaera batzuk bataio-izen izateari utzi eta deitura bezala erabiltzen hasi ziren. Honen adibide garbia *Garciarena* da. Hasieran bataio-izena edota patronimikoa zen, baina gerora deituren eremura murriztu zen.

Antzekoa da *Juan/Jeanen* kasua. Erdi Aro Beherean ikusten ziren aldaera herrikoiak eta hipokoristikoak asko gutxitzen dira Aro Moderno eta Garaikidean bataio-izen gisa; oikonimoetan, herri-erabileran edota deituretan ikusi daitezke.

Aro Modernoko izenen estandarizatzeko eta aldaera batzuk nagusitzeko joera naturalki gertatu zen, baina Trentoko Kontzilioak prozesuan lagundu zuen. Dena dela, prozesuak luze iraun zuen. Aldaera herrikoiak ez ziren egun batetik bestera desagertu, eta XVIII. mendean ere topatu daitezke.

4.3.1. Aldaerak EAEko parrokia artxiboetan

Azpiatal honetan lehenago aipatutako estandarizazio prozesu mantsoa ikusiko dugu mendez mendez.

Ugari dira lekukotasunak EAEan. Azterketa burutzeko dokuklik⁶ web-orrialdea erabili da, parrokitako erregistroak digitalizatuta baitaude, eta bilaketa sistematikoki egin daiteke.

Esan beharra dago dokuklik web-orrialdeak XVI-XIX. bitarteko EAEko probintzietako erregistroak baino ez dituela. Beraz, Nafarroa eta Iparraldeko daturik ez da bildu atal honetarako. Ikusiko diren orokorpen eta estandarizazio joerak EAEan bakarrik ikusten dira, ez Euskal Herri osoan.

Gainera, grafiari gutxi erreparatuko zaio atal honetan. Horrela, bokalarteko <h> edo <n> geminatuak ez dira kontuan hartuko, baizik eta aldaera osoa orokorrean.

Bilduko diren datuak jaiotze-partidetakoak dira, mendez mendez eta probintziaz probintzia bilatuz eta modu berean antolatuz.

4.3.1.1. XVI. mendea

Erdi Aroa bukatu berritan, izenen aldaerak ugariak dira oraindik ere probintzia guztietan. Dena den, probintzia bakoitzean aldaera bat nagusitzen dela ikusiko dugu.

6 <http://dokuklik.snae.org/sacramentales.php>

Araban topatu daitezkeen aldaerak ugariak dira. *Joanesen* aldaera gutxi batzuk topatu daitezke, *Ioannes* (Gasteiz, 1595) edo emakumezko *Mari Joanes* (Aramaio, 1551) antroponimoak demostratu bezala.

Hala ere, badira aldaera ugariagoak ere. *Joan* adibidez ugariagoa da Araban. Asko dira *Joana* (Gasteiz, 1502) edo *Johan* (Erriberagoitia, 1510) itxurakoak; baina XVI. mendean Araban dagoen aldaera ugariena *Juan* da, eta Gipuzkoako hego-mendebaldean ere erabiltzen zen, *Juanek* (Arrasate, 1537) demostratu bezala.

Gipuzkoan ere aldaera ugari topatu daitezke mende honetan. Gorago ikusi bezala, hego-mendebaldean *Juan* aldaera ohikoa da, eta mende amaieran probintzia osora zabaltzen hasten da. Honetaz gain, probintziako mendebaldean maiz agertzen dira *Joan* (Antzuola, 1541) bezalakoak. Interesgarria da aldaera hau mendearen bigarren erdian Gipuzkoako kostatik hasten dela zabaltzen batik bat, emakumezko izen bikoitz *Maria Joan* (Zarautz, 1580) edota gizonen *Joan* (Zumaia, 1590) bezalakoak topatuz erregistroetan.

Garai honetan, *Joane* (Oñati, 1557) bezalako aldaeraren bat topatu badaiteke ere (amaierako -s gabekoa, alegia), Gipuzkoako aldaera nagusia *Joanes* da. *Johanes* (Ordizi, 1527) edo *Mari Joanes* (Hondarribia, 1575) bezalako ugari topatu daitezke gizonetzko nahiz emakumezko izen gisa, Tolosaldea eta Goierriin batez ere. Gainera, geroz eta ugariago azaltzen den aldaera da. Aduna herrian *Johanez* (Aduna, 1533) eta *Juhanuz* (Aduna, 1539) topatu daitezke.

Bizkaiko aldaera ohikoena *Joan* da probintzia osoan. Deigarri suertatu daiteke Durangon gertatzen dena. Gizonetzkoen izen gehienak *Johanico* (Durango, 1510) hipokoristiko bezala erregistratuta daude. Emakumeen artean ordea, ez da hau gertatzen *Johana* (Durango, 1510) oinarritzkoa izanik forma ohikoena.

Juan ez da oso ohikoa Bizkaian XVI. mendean; bai ordea *Joanes*. Hau bigarren erdialdean ugaritzen hasten da, nahiz eta ez den oso ohikoa. *Mary Joanes* (Lezama, 1551) ordea oso ohikoa da Lezamako emakumeen artean.

4.3.1.2. XVII. mendea

Hurrengo mendean *Joanes* antroponimoaren aldaera gutxiago topatu daitezke hiru probintzietan, eta probintzia bakoitzean aldaera batzuk nagusitzen eta beste batzuk desagertzen joan zirela ikusten da.

Araban joerak antzekoak dira. *Joanes* bezalakoak gutxiago agertzen dira, eta *Joan* (Gasteiz, 1675) bezalakoak ez dira ohikoak. Alderarik ugariena mende honetan ere *Juan* da. *Juan* (Kanpetzu, 1645) lekukotasunak adierazi bezala, izena bakarrik da Araban nagusiki ikusten dena.

Gipuzkoan, *Joanes* da ugariena. Mendearen lehen hiru laurdenetan erruz topatu daitezke *Joanes* (Hernani, 1665) bezalakoak, baina azken laurdenean beherakada ikaragarria du bataio-izen gisa.

Joan probintziako mendebaldean eta kostatik ugarituz doa mende honen lehen erdian, baina *Joanesen* nagusitasuna nabaria da oraindik. Bigarren erdian ordea probintzia osora zabaltzen da, *Joan* (Andoain, 1675) edo *Joana* (Ataun, 1695) lekukotuz.

Juan ere aldaera oso ohikoa da Gipuzkoan, baina beste bi probintzietan ez bezala, mende amaieran izen konposatuetan agertzen hasten da, *Juan Ygnacio* (Zaldibia, 1692) bezalako bataio-izen bikoitzak sortuz.

Bizkaian ere oso ohikoa da *Juan* (Markina-Xemein, 1645) izena, baina Araban bezala izena bakarrik agertzen da, izen bikoitz izan gabe.

Aldaera ohikoena *Joan* da oraindik, bai gizonezkoen artean (*Joan*; Bakio, 1675) eta baita emakumezkoen artean (*Joana*; Elorrio, 1638) ere.

Mendearen hasieran *Joanes* (Elorrio, 1615) aldaera sartzen hasten da Gipuzkoatik gertuen dauden herrietan. Mendean zehar zabaldu egiten da, eta amaieran, Gipuzkoan baino ugariago da Bizkaian, *Maria Joanes* (Busturia, 1694) batik bat, emakumezko izen bezala.

4.3.1.3. XVIII. mendea

Mende honetan ere aldaera kopuruak murrizten jarraituko du.

Araban *Joan* aldaera agertzen bada ere, askoz urriagoa da aurreko mendeetan baino. *Juan* da ohikoena, orain arte bezala, eta bakarrik agertu daiteke, baina geroz eta ugariago dira *Juan Martin* (Maeztu, 1749) edo *Juana Baltasara* (Zanbrana, 1775) bezalako bikoitzak, mendearen bigarren erdian batez ere.

Gipuzkoan badira oraindik *Joanes* batzuk, Tolosaldea-Goierrri inguruan batez ere. Hala ere, *Joan* eta *Juanek* hartzen dute nagusitasuna, bigarrenak batez ere. Aurreko mende amaierako joerari eusten zaio, bi aldaerak izen bikoitzetan agertzen dira gehien,

Francisca Ana Juana (Tolosa, 1729) edo *Juan Domingo* (Bergara, 1784) bezalakoetan.

Bizkaiko joera antzekoa da. Mende honetan ere *Maria Joanes* agertzen da, baina honen presentzia gutxituz doa. Mendearen lehen erdian *Joan* eta *Juan* bakarrik azaltzea da ohikoena, baina bigarren erdian konposatuak ere ugaritu egiten dira, *Juan Nicolas* (Orozko, 1775) bezalakoak nagusituz.

4.3.1.4. XIX. mendea

XIX. mendean *Joan* eta *Juan* nagusitzen dira probintzia guztietan, eta hasieran erregistratutako beste aldaerarik ia ez da.

Arabian *Juan* (Lagran, 1815) edo *Joan* (Lapuebla de Labarca, 1865) bezalakoak topatu badaitezke ere, *Juan Jose* (Amurrio, 1847) bezalako izen bikoitzak topatzea da ohikoena. Hala ere, esan beharra dago Arabian beste probintzietan baino gehiagotan agertzen dela izena bakarrik.

Gipuzkoako egoera antzekoa da. Izena soilik gutxiago agertzen bada ere, izen bikoitzak dira ohikoen. *Joanekin* gehienetan emakume izenak osatzen dira, *Joana Agustina* (Andoain, 1818) bezalakoak. *Juanekin* ordea ohikoena gizon izenak osatzea da, *Juan Castor* (Zegama, 1815) esaterako.

Bizkaian *Maria Joanes* mende hasieran baino ez da agertzen, eta oso kopuru murriztean. Aldaera ohikoenak hemen ere *Joan* eta *Juan* dira. Gipuzkoan gertatzen den antzera, *Joanekin* osatutako konposatuekin emakume izenak sortuz eta *Juanekin* gizonenak.

4.3.2. Literatura agerpenak

Euskal Herrian idatzizko literaturak bost mendeko historia laburra du. Orain gutxirarte, idatzizko produkzioa nahiko urria izan da, eta hasierako euskal literatura hark bazuen ezaugarri nagusi bat: erlijiosoa zela. Hau erraz ulertzen da autore gehienak erlijio-gizonak zirela gogoratzen badugu, eta hauen lanak katexima eta dotrinak izan ziren. Dena dela, erreforma protestantea medio, itzulpenak egiten ere hasi ziren Iparralden.

Aurreko ataletan ikusi dugu *Joanes* izenari zein trataera eman zitzaion historian zehar, dokumentu ofizialen bidez. Oraingo atalean, literatura herri aldaeren gordailu izan daitekeelakoan, euskal autore klasiko batzuek izena nola erabili zuten aztertuko da.

Esan beharra dago atal hau Euskal Klasikoen Corpusaren (EKC) laguntzaz osatu dela, eta ohartu behar dugu batueraren grafia erabili dela.

4.3.2.1. Autoreen izenez zerbait

Joanes eta honen aldaeren literatur agerpenei ez ezik, autoreen izenei ere erreparatuko diegu. Asko dira izen hau duten autoreak mendeetan zehar.

Esaterako, Hegoaldeko autoreen artean topatu daitezkeen aldaera *Juan* da, esaterako Juan Perez de Lazarraga eta Juan Beriainengan; edota Juan Mateo Zabalarena eta Juan Antonio Ubillosena bezalako izen bikoitzetan.

Iparralden ordea, ugariagoa da *Joanes* aldaera, aski ezagunak diren Ioannes Leizarraga edo Joanes Etxeberri Ziburukoa idazleetan ikusten den bezala. Honetaz gain, frantsesezko aldaera (Dauzat 1944: 343), *Jean*, izena zuten idazleak ere badira, Jean Baptiste Arxu edota Jean Hiriart-Urruti bezala. Gainera, azken honek batzuetan *Manex* sinatzen zuen (Salaberri 2009: 74). Zuberoan Juan Tartasek bere izena *IVAN DE TARTAS* (Tt *Onsa*) idazten du (*Juan* ahoskatu beharrekoa), baina deigarria da Baionako apezpikuak *Ioannes* lapurtar formara birmoldatzen duela Tartasen izena bere oniritzian.

4.3.2.2. XVI. mendea

Hasteko, Ibarгүйen-Cachopinen kronikan bildutako *Arrasateko erreketak* bertsoetan *Joanicote* (8. bertsoa) eta *Joanicoc* (36. bertsoa) topatu daitezke (*TAV*: 82-84), garaiko *Joan* izenari *-co* (+ *-te*) gehituz hipokoristikoa osatzeko. Mendebaldeko aldaera herrikoien adibide dira.

Mende berean, nahiz euskarazko lehen obran ez den *Joanesik* agertzen, hiru autorek lekukotzen dute *Joanes* izena beren obretan.

Mendebaldean, Araban zehazkiago, badirudi hagianimoa erabiltzeko *Ioandoneanez*⁷ bezalako aldaerak erabiltzen direla. «Jaun Done» *Joanezekin* elkartzen da Betolatzak dakarren *Ioandoneanez Batistea* (Bet DC) sortuz.

Baina aurrekoa hagianimian bakarrik ikusi daiteke. Izan ere, arabarra den Lazarragak, 1600 inguruan, bere izena *Juan* aldaerarekin idazten du, hala eskuizkribuan, nola bere kronika genealogikoan. Aitzitik, badu 12. poeman *Joan Lopez jauna Çuaçuco* (Lazarraga, A12: 9) forma ere, eta hagianimoa *Jandoneanez* (<1170v>) erabiltzen du: <

7 Esanguratsua da Betolatzarenak, Lazarragarenak eta Kapanagarenak besteak beste, amaieran *-z* dutela. Itxura guztien arabera tratamendu fonetiko zaharra duena (ikus §3.2).

**jaun-done-Joanes*. Dirudienez, hainbeste garatu da, non jatorrizko formak galdu diren, eta honek *jaun* eta *Joanen* arteko nahasmena sortu du, hortik Betolatzaren *Ioandoneanez* edota Haranederren *Jondoni Jauni*.

Euskal Herriko ia beste muturrean, Nafarroa Beherean, Leizarragak beste bi aldaera ekarri zituen *Testamentu Berrian* (1571). Leizarragak bere burua *Ioannes Leizarraga* (Lç TBko Erreginari zuzenduriko eskaintzan) bezala aurkezten dio Joana Albretekoari. Testuan, edozein *Joanes* izendatzeko *Ioannes* (Lç TB) forma darabil. Aitzitik, *San Ioan* (Lç TB kapituluaren izenean) forma erreserbatzen du ebanjelioaren egilearentzat.

4.3.2.3. XVII. mendea

Hurrengo mendean ugariagoak dira euskaraz idazten duten autoreak, baina ekialderago bilatu behar dira lekukotasunak.

Testuei begiratu aurretik, interesgarria da jakitea Mitxelena & Irigarayk (1955: 118) diotenez, Bizkaian eta Zuberoan *-s* gabeko aldaerak daudela. Aitzitik, hagianimoetan eta toponimoetan lapurterak eta behe-nafarrerak ere *-s* gabeko aldaerak jartzen dituzte. Badirudi begiratutako datuetan orokorpen horiek betetzen direla.

Tartasek hagianimoak erabiltzeko garaian, lau aldaera desberdin erabiltzen ditu: *Ioan-doné* (edo *Ioandoné*) *Ioannes Euangelista* (Tt *Onsa*), *Ioandone Ioané* (Tt *Onsa*) eta *Ioandoné Iohané* (Tt *Onsa*).

Belapeirek *Katexima labürran* (1696) *Jondane Johanek* (Bp) dakar, ergatiboan. Honek zalantzak sortzen ditu, *Johan* izan baitaiteke loturazko *-e*-rekin; edo *Johane*, *-s* gabeko aldaera.

Mende berean, Lapurdikoak dira lekukotasun ugariak. Aldaera zabalduenak *Ioanes* eta *Ioanis* dira. Etxeberri Ziburukoaren lanetan (*Eliç*, 1665; *Man*, 1627; *Noel*, 1630) *Ioannes* (EZ) erabiltzen du pertsona izen eta hagianimoetarako. Axularrek hagianimoetarako ere *Iondone Ioannes* (Ax *giëro*) darabil bere obran.

Gazteluzarren liburuan *Joannes Baptista* (Gç *Eguia Cat*) topatu daiteke, baina baita *Joannis diszipuluari* (Gç *Eguia Cat*) ere, biak hagianimo gisa.

Pouvreuren obretan ere (*Gir Doc*, 1656; *Phil*, 1664; *Gudu*, 1665; *Imit*, 1669) *Iondone Ioannis Ebanjelista* (SP) agertzen da.

Haranburuk ere *Iondone Ioanis Baptista* (Harb *Deb esc*) dakar; baina ez beste

aldaera bat ere badu: *Ioanniz* (Harb *Deb esc*), hau ere hagianimorako.

Haranburu ez da amaieran -z duen aldaera erabiltzen bakarra; Etxeberri Ziburukoarengan ere *Ioanez Baptista* (EZ *Eliç*) topatu daiteke-eta.

Dena den, badira beste aldaera batzuk. *Pouvreauk San Iuan* (SP *Phil*) agertzen du, eta Axularrek eta Haranburuk ere *Ioan* dakarte, Axularrek pertsona izen gisa eta Haranburuk hagianimo gisa.

Iruñe inguruan ere, Beriainek bi aldaera erabiltzen ditu bere liburuan hagianimorako. *Iuandone Iuanes* eta *Iuandone Iuanis* (Ber *Trat*) darabiltza; baina baita *san Iuan* (Ber *Trat*) ere.

XVII. mendean argi dago hagianimoetarako izen orokorra *Ioannes* eta honen aldaerak direla, Iparraldean eta Iruñerrian behinik behin. *Ioan* eta *Iuan* ere erabiltzen dituzte: Beriainek Hegoaldean, eta Axularrek eta Haranburuk Iparraldean. Gainera, kontuan izan behar da Axular urdazubiarra zela.

4.3.2.4. XVIII. mendea

XVIII. mendean lehen liburuak argitaratzen hasten dira Gipuzkoan, eta gipuzkeraz. EKCKo bilaketetan oinarrituz honakoa topatu daiteke mende berrian. Otxoa Arinek *San Juan Baptista* (OA *DC*) dakar. Kardaberazen obretan (*CatV*, 1762; *JMJ*, 1766; *Sign*, 1767) *San Joan* (Cb *CatV*) darabil hagianimoetarako orokorrean, nahiz *San Juan* (Cb *JMJ*) ere badarabilen, baina *Juan* (Cb *JMJ*) ugariago da pertsona izen gisa. Mendibururenetan (*EOnBiz*, 1762; *Igande...*, 1767-1782) *Joan* eta *Juan* (Mb) erabiltzen ditu santu eta ebanjelarien izenekin eta *Juan* (Mb) pertsona izenekin.

Aitzitik, Ubillosek, gipuzkoarra izanda ere, *Joanes Bautista* (Ub *CD...*) darabil, baina baita *San Juan Bautista* (Ub *CD...*) ere.

Nafarroan, Lizarraga Elkanokoak *Juan* eta *Joan* (LE *Serm*) erabiltzen ditu hagianimoetarako. Pertsona izenetarako, ordea, *Juan* (LE *Serm*) erabiltzen du.

Garai honetan, Iparraldean, *Joanes* (He *JK...*) darabil Haranederrek. Etxeberri Sarakoak ordea, *Joannes* (ES *EH*) darabil pertsona izenetarako: *Joannes de Etxeberri Ziburuko Jaun Apezak* bezala adibidez. Baina hagianimoetarako *Joandoni Joannis* (ES *EH*) darabil. Badirudi -es eta -is amaierekin bereizten dituela izen motak.

4.3.2.5. XIX. mendea

XIX. mendean ere literatur produkzioak gora egin zuen probintzia guztietan.

Ekialde muturretik hasita, Arxuk *Manex* (Arch *Fab*) dakar. Harrigarria da zuberotar batek izen hau izatea gogoratzen bada zuberotarrek *manexak* esaten dietela behe-nafar eta lapurtarrei.

Nafarroa Beherean, aldaera nagusia *Joanes* da. *Joannes-Baptista* (Elsb *LehE*) hagianimoa eta *Joannes-Jakes Rousseau* (Elsb *Fram*) antroponimoa dakartza Mixel Elizanburuk. Joanategik ere *Joanes Batixta* (Jnn *Sbi*) hagianimoa du, baina baita *Jondoni Joani-Batixtak* (Jnn *Sbi*) ere. Dena den, *Manex* (Elsb *LehE*) ere agertzen zaigu Nafarroa Beherean, antroponimo gisa.

Lapurdin dago agian aldaera gehien. Lapurdiko autoreek gehien erabiltzen dituzten aldaerak *Joanes*, *Joane* eta *Joani* dira. *Joanes* (Hb *Esk*) pertsona izenatarako erabiltzen bada ere; *San Joannes* (Zby), *San Joanez-Batixta* (Zby), *Jaun Done Joanes* (Dv) behin edo *Joanes Baptista* (Dv) ere topatu daitezke. Hala ere, Duvoisinen kasuan, *Jaundone* erabiltzean *Iohane*, *Joane* (Dv *LEd*) eta *Joani* (Dv *BaigZL*) agertzen zaizkigu. Zaldubi eta Duhalderengan *Jaundoni Joani Ebanjelista* (Zby) eta *jaundone Joani Ebanjelista* (Dh *Medit...*) agertzen dira. Zaila da erregulartasunak topatzea autore hauen artean, baina badirudi Zaldubik bereizketa bat egiten duela: *San* elementuaren ondotik *Joanes/Joanez* darabil, baina *Jaundonirekin Joani* erabiltzen du.

Badira beste aldaera batzuk ere Lapurdin. *Manex* (HU *ZeZ*) topatu dezakegu garai honetan; baina baita *Ganis* (Dv *BaigZL*) edo *Ganix* (*AtheKa*) ere⁸. Hipokoristikoa hauetaz gain *Juantchuto* (Zby) edo *Juanxuto* (Hb *Esk*) ere agertzen zaizkigu.

Gipuzkoan ere badira lekukotasun ugari. Batzuk ekarriz, ikusten da aldaera nagusiak *Joan* eta *Juan* direla. Hagianimoen artean *Juan Ebanjelista* (AA III), *Done Juanez* (Izt D), *San Juan* (Izt D) eta *Juan Baupista* (Lard) topatu daitezke, *Juan* aldaera nagusiki alegia. Antroponimoen artean ordea *Joan* (AA III), *Juan* (Izt D) eta Hegoaldean harrizketa bada ere, *Joanes* (Izt C) ere topatu daitezke.

Azkenik, Bizkaiko aldaerarik zabalduenak *Juan* eta *Joan* dira. Aztertutako

8 Iparraldean, XIX. mendean, agertzen diren bi aldaera hauek *Joanesetik* omen datoz, Mitxelenaren ustez *Joanes*, *Joanis* → *Ganix* → *Manix* bilakaeraren bidez (*apud* Salaberri 2009: 74). Dirudienez beraz, jatorrizko /ju-/ /ga-/ bihurtu da, lexikoan bezala (*FHV*: 173). Konparatu bedi *joan* > *gan* (“a-nav. Baztán, lab. Costa”). Eta bestetik txistukariaren bustidura adierazgarria daukagu. *Manexen*, hortik abiatuta, bi gertakari ditugu: artikulazio puntuaren aldaketa eta sudurkaritzearen asimilazioa. Bestetik, badago *Nanisena* oikonimoa (Berriozar, 1727), again *Joanisetik*, Salaberri (2009: 252) proposatzen duenaren arabera errepikapenez sortua. Aezkoan ere badugu *Fanex*, hau ere lexikoarekin lotu daitekeena: *fan* “joan” (“aezc.”).

autore guztiek (Uriartek, Añibarrok, Zabalak, Juan Antonio eta Juan Jose Moglek) erabiltzen dituzte izen arrunt nahiz hagianimoetarako.

Mendeetan zehar *Joanes* izena nola erabili den aztertuta, mendeetan jasandako aldaketak ikusita, J. A. Moglek *Peru Abarkan* (1802-1881) ondo islatzen du garaiko errealtatea. Elkarrizketa liburuan, *Maisu Juan* izeneko pertsonaia dago, hegoaldekoa, horregatik da haren izena *Juan*. Baina bada *Joanis* izeneko pertsonaia bat ere:

“M. J. Peru, beti ondo verba eguiten dozu, ta Jangoicuac gorde daguizuzala buru ta miñ orreec. Alperric izango da ni verba eguiten astia luebaguin orregaz; ta alan esan eguijozu presta dedilla azerijac ataira eracarri, eta artutera neuc dacustala. ¿Ce icen emoten deutzazu? ¿Cer da Joanis?

P. Joanis esaten deutsee prances euscaldunac Juan edo Juanico esaten deutzagunari, celan Petri Pedrori, ta Estebe Estebani. Quiputzari esan deutzat Chorgori Gregorijo esateco.” (Mg *PAb*, 163)

Aipatzekoa da Daskonagerre eta beste hainbat autorerekin agertzen zaizkigun *Ganix* eta *Manex* gehiagotan agertzen direla XX. mendean, Lapurdin batez ere.

Lapurdin hainbat dira *Ganix* darabilten autoreak. Horien artean Larzabal *Bordaxuri* eta *Okilomendi* antzerkietan, eta Zerbitzarik ere *Ganix* (Zerb *Azk*) eta *Ganixon* (Zerb *Metsikorat*) dakartza, hipokoristikoarekin.

Gipuzkoan ere agerpen bat badu, Orixek *Ganix* (Or *Eusk*) dakar, Anizko pertsonaia baten izen bezala. Beraz, pentsatzekoa da Lapurdi eta Nafarroa inguruko aldaera dela.

Lapurdin *Manex* (Zerb *Azk*) ere agertzen zaigu, baita Gipuzkoan eta Nafarroa Beherean ere: *Manex* (Or *Eusk*) eta *Manex* (Ox *Oxobi-ren...*).

4.3.3. *Juan-/Joan-/Gani-/Mane-* oikonimoetan

Atal honetan, *Joanes* izenak etxe-izenetan duen presentzia aztertuko da. Horretarako, Patxi Salaberriren “Nafarroako euskal oikonimiaz” (2006) artikulua baliatuko da, eta bilketa egiteko Mujika (1989), Mujika (2005) eta Mujika (2007) eta *Onomasticon Vasconiaeko* hainbat liburu erabiliko dira.

Jarraian, oinarrian *Joanes* duten probintzia batzuetako oikonimoak ikusiko ditugu, zer motatakoak diren azalduz.

4.3.3.1. Gipuzkoa

Mujikaren *Euskal toponimiazko materialeaketik* (1989) bildutako Gipuzkoako oikonimia nahiko ugaria da. Hala ere, Gipuzkoako mendebaldean oso oikonimo gutxi

bildu dira lan honetan.

Joanes izenetik abiatuta eraiki diren oikonimoak oso gutxi dira. Etxe eta baserri hauek ekialdetik erlatiboki gertuago dauden herrietan daude, Donostian, Astigarragan eta Irunen hain zuzen. Baserri eta etxeak *Joanistegi* (Donostia, 1824; *Mat.* VII: 246), *Juanestxipi* (Astigarraga, XVIII; *Mat.* VII: 247) eta *Juaneslekuonekoa* (Irun, XIX; *Mat.* VIII: 234) dira.

Bestela, Gipuzkoa osoan *Juandik* eratorritako oikonimoak dira ohikoenak.

Juanen hipokoristikokoetatik abiatutakoak topatu daitezke: *Juangorena* (Bidania, 1775; *Mat.* XI: 89), *Txuanena* (Oñati, 1775; *Mat.* XVIII: 283) eta *Juangotxoenea* (Irun, XIX; *Mat.* VIII: 234) esaterako.

Salaberrik (2006) azaltzen dituen oikonimo moten artetik, izena+Abizen/Ezizen motakoak ere topatu daitezke: *Juantxoandiaenia* (Hernani, 1812; *Mat.* VII: 112) edo *Juanlopezenea* (Amezketan; *Mat.* II: 373) esaterako.

Lehenago ikusi bezala, *Juan* ere bustidurarekin agertu daiteke, *Txuan* bezala agertuz; baina forma hau Gipuzkoako bi eremutan agertzen da: mendebaldean eta ekialde muturrean. Oñati eta Urretxun ditugu aldaera honen adibideak; baina baita Irunen ere: *Txoanenea* (Irun, XIX; *Mat.* VIII: 270). Irunen hainbat lursail ere topatu daitezke, *Txuantenea* (Irun, 1841; *Mat.* VIII: 270) lursaila esaterako.

4.3.3.2. Lapurdi

Lapurdin ere oinarrian *Juan* duten etxe eta baserriak topatu daitezke, *Juantenia* (Ezpeleta; *Ipar* II: 44) esaterako. Baina Gipuzkoako Ipar-Ekialdean bezala, bustiduradun formak ere ageri dira Lapurdin. Kasu baterako, *Xoanabaita* (Urruña; *Ipar* II: 279). Azken honen harira, Salaberrik (2006) azaltzen du Nafarroako Bortzirietan (Etxalarren izan ezik) eta Iparraldean *-baita* dagoela izenaren amaieran, honen jatorriaz ezer gutxi badakigu ere.

Manex eta *Ganix* aldaeretan oinarrituak ere topatu daitezke Iparralde osoan zehar, *Manestegi* (Arruta-Sarrikota, 1874; *Ipar* I: 274) edo *Ganisola baita* (Urruña; *Ipar* II: 231) adibidez; ez ordea Hegoaldean.

4.3.3.3. Nafarroa

Nafarroako oikonimoetan ere *Juan* aldaeraren gainean eraikitzen dira

oikonimoak, Hegoaldean ohikoa den bezala. Ez da bustiduradun formarik topatu Lapurdi eta Gipuzkoako mugan edo Gipuzkoako mendebaldean bezala, baina bai *Juanen* hipokoristikoetatik abiatutuako oikonimoak. Beraz, *Don Juanecoa* (Olatz, 1679; *Onomasticon* 2: 323) bezalako etxe-izenekin batera, *Juanicorena* (Goizueta, 1616; Perurena 2011: 112) edota *Joanotena* (Salinas, 1608; *Onomasticon* 2: 371) ere topatu daitezke, oinarrian hipokoristiko bat dutenak.

Nafarroan ere badira Izen+Deitura/Ezizen motakoak ere. Horren adierazgarri dira *Juanpericenea* (Etxalar, XVII; *Etxalar*: 114) edota *Juan Gorriarena* (Astrain, 1683; *Onomasticon* 1: 156) eta *Juanico Chiquiarena* (Olatz, 1679; *Onomasticon* 2: 323) ere.

4.3.3.4. Bizkaia

Bizkaian oikonimo gutxi topatu ditugu, baina bildu ditugunak hemen azaltzen ditugu.

Badira izen bikoitzetatik sortutako oikonimoak Bizkaian, *Juan Leonen etxea* (Otxandio; Astigarraga 2009: 143) esaterako.

Mikrotoponimo (soroak, belazeak etab.) interesgarri batzuk ere badira; adibidez, Getxoko *Juansolo* (Getxo, 1666; Gorrotxategi 2010: 220), *Dontxon basoa* (Otxandio; Astigarraga 2009: 97) **Donetxoan* ← **Donejoan* izenetik etorri daitekeena.

4.3.4. XX. mendeko berrikuntzak. Sabino Arana eta Jose María Satrustegi

4.3.4.1. Sabino Aranaren *Deun Ixendegi Euzkotarra*

Sabino Arana Goiri, XIX. mende amaieran jaioa, euskal nazionalismoaren aitzindari kontsideratu da. EAJ alderdia sortzeaz gainera, euskalgintzan ere hainbat lan burutu zituen. Horien artean, atal honetan aztertuko dugun *Deun Ixendegi Euzkotarra* (*Ixendegia* hemendik aurrera). *Ixendegia* Koldobika Eleizaldek argitaratu zuen 1910ean, Arana hil eta 7 urte geroago.

Eleizaldek hitzaurre bat egin zuen izendegia argitaratzeko zergatiak eta izenak nola euskaratu azalduz, hainbat arau emanez horretarako, esaterako /f/ ordez /p/ erabili behar zela, edota neska izenak osatzeko *-ne* jarri behar zela esanez.

Ixendegian *Jon* eta *Jone* proposatzen ditu *Juanen* kide bezala. *Ua* > *o* bilakabideari buruzko azalpenik ez du ematen, baina *Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino* (1896: 53) liburuan azaltzen du euskaraz /u̯a/ diptongorik ez dagoenez

bi bokal hauen baturak /o/ ematen duela. Beraz, *Juan* > *Jon* da, eta emakume izena sortzeko *-ne* gehitu behar zaionez *Jone* sortzen da.

Gainera, liburua bi zatitan banatua dago, bata gaztelaniazkoa eta bestea euskarazkoa, hiztegi baten antzera, alfabetikoki ordenatuta izenak eta haien kideak. Gaztelaniazko zatian *Jon*, *Jone*, *Juan* kideak ematen ditu, baina euskarazko zatian ez da agertzen izen hau ezta kiderik ere. Akats bat omen da.

Sabino Aranek asmatutako izen batzuek arrakasta izan zuten, eta gaur egun ere oso ohikoa da *Edurne*, *Gorka*, *Joseba* edo *Garbiñe* topatzea, eta, noski, *Jon* eta *Jone* ere bai.

4.3.4.2. J. M. Satrustegiren *Euskal Izendegia*

Atal hau osatzeko, Jose Maria Satrustegiren *Euskal Izendegian* (1972) oinarritutako Patxi Salaberri eta Mikel Gorotxategiren *Euskal Izendegia. Ponte izendegi. Diccionario de nombres de pila. Dictionnaire des prénoms* (2001) liburua erabili da.

Satrustegik, bere lanean, Aranaren berrikuntza batzuk onartzeaz gain, lehenagoko aldaera herrikoiak ere onartzen eta arautzen ditu, jarraian ikusiko dugun bezala.

Mutil izenen artean, *Joanis*, Aranaren *Jon*, *Joan*, *Joanes*, eta *Joango*, *Ganiz*, *Manex*, *Manez* eta *Joanikot* hipokoristikoak biltzen dituzte Salaberri eta Gorotxategik (2001).

Neska izenentzako aldiz, *Joana*, *Joane* (Aranaren *Joneren* analogiaz sortua), *Joanitz* (< *Joan* + *-(e)(i)tz*), *Joanitza*, Aranaren *Jone*, eta *Jonebatiste* izen bikoitza biltzen dituzte.

Esan beharra dago lehenago ikusiriko izen bikoitzetatik *Jonebatiste* izena bakarrik bildu dutela, baina mutilen izenen artean ez dagoela izen bikoitzik, aztergai dugun izenean behintzat.

5. Ondorioak

Lanean zehar *Joanes* izenaren bilakaera aztertu dugu, mendeetan zehar nola aldatu den ikusiz. Ez dira lekukotasun guztiak aztertu, baina laginetan joera nabarmenenak ikusi daitezke.

Ikusi dugu *Joanes* izena hebreerazko *Yehohananetik* datorrela. Grezieratik eta ondoren latinetik igaro ondoren, *Iohannes* eta honen interpretazio morfologikoak Europako hizkuntza desberdinetan zabaldu ziren. Euskaraz lau oinarritzko aldaera sortu ziren: *Joanes/z*, *Joanis/z*, *Joane* eta *Joan*.

San Juan Bataialariaren kultura Euskal Herrian antzinakoa da, Erdi Aro garaikoa, baina inguruan bezala, izena ez zen nagusitu Erdi Aro Betera arte.

Erdi Aro Beteko agirietan *Iohannes* forma lematizatua bada, Erdi Aro Beherean aldaera herrikoiak eta hipokoristikoak ugaritzen dira dokumentu ofizialetan, hala nola, *Johanche* eta *Johanet*.

Aro Modernoan eta Garaikidean forma hipokoristikoek emankortasun gehiago dute ekialdean mendebaldean baino. EAEan, XVI-XVII. mendeetako agirietan forma hipokoristikoak badaude ere, batez ere *Juanen* aldeko joera nabari da, parrokia artxiboetan behintzat. Aitzitik, Iparraldean eta Iparraldetik gertuko Nafarroako bailaretan hipokoristikoen sorrera askoz emankorragoa, *Manex*, *Ganix*, *Fanex* eta hauetatik eratortzen diren aldaerek demostratzen duten bezala.

Azkenik, Sabino Aranak izen kristauak euskaratu zituen, *Jon* eta *Jone* sortuz. Gero, Satrustegik, Aranaren berrikuntzetaz gain, lehenagoko aldaera herrikoiak bildu eta arautu zituen.

Galdekizun interesgarri bat *Donibaneen* jatorria da. Lanean aipatu bezala, Orpustanek **jaun-doni-johanetik* datorrela zioen. Printzipioz, beste azalpen bat honakoa litzateke: *Ioan-* > *Iuan-* > *Iwan-* > *Iban-* garapen fonetikoa. Honela, hau erkatu ahalko litzateke Errusiako *Ivan* eta Gaztela eta Leongo *Ibañeren* garapen fonetikoekin.

Esan dezagun bukatzeko, antroponimoen aldaerak eta joerak ikustea interesgarria izan zitekeelakoan aztertu dugula *Joanes*. Helburua ikuspegi orokor bat ematea zen, *Joanesen* edo beste izenen etorkizuneko ikerketetan abiapuntu bat izateko. Espero dugu neurri batean bete izana.

Bibliografia

ALLIKA, I., URIARTE, B. 2007. *Bermeoko toponimia*. Bermeoko Udala, 951.

ARANA GOIRI, S. 1896. *Lecciones Ortografía del euskera bizkaino*. Bilbo: Bizkaya'ren Edestija ta Izkerea Pizkundia.

- _____, ELIZALDE, L. 1910. *Deun-ixendegi euzkotarra edo deunen ixenak euzkeratuta ta ixentzat ezarten diran jayetako ixenan euzkerazko ikurpenak*. Bilbo: Euzko Alderdi Jeltzalia.
- ASTIGARRAGA ZELAIA, A. 2009. *Otxandioko toponimia*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- CARRASCO PEREZ, J. 1973. *La población de Navarra en el siglo XIV*. Iruñea: Universidad de Navarra.
- DAUZAT, A. 1944. *Les noms de personnes. Origine et évolution. Prénoms – Noms de famille – Surnoms – Pseudonymes*. Paris: Libraire Delagrave.
- FAURE, R. 2002. *Diccionario de nombres propios*. Madril: Espasa.
- _____, RIBES, M. A., GARCÍA, A. 2001. *Diccionario de apellidos españoles*. Pozuelo de Alarcón: Espasa.
- GARCÍA CAMINO, I. 2002. *Arqueología y población en Bizkia, siglos VI-XII. La configuración de la sociedad feudal*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- GARCÍA GALLARÍN, C. 2009. “Variación y cambio antroponímicos: los nombres de persona en el periodo clásico”. In: García Gallarín, C. (zuz.) & Cid Abasolo, K. (koord.). 71-110.
- ____ (zuz.), CID ABASOLO, K. (koord.) (2009). *Los nombres de persona en la sociedad y en la literatura de tres culturas*. Madril: Sílex.
- GARCÍA RODRÍGUEZ, C. 1966. *El culto a los Santos en la España romana y visigoda*. Madril: CSIF.
- GORROTXATEGI, M. 2010. *Getxoko izenak. Aldeetxe eta leku izenak*. Getxoko Udala.
- _____, SALABERRI, P. 2001. *Euskal Izendegia. Ponte izendegi. Diccionario de nombres de pila. Dictionnaire des prénoms*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- GOYHENETCHE, E. 1966/2011. *Onomastique du nord du Pays Basque (XIe-XVe siècles)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- JIMENO JURÍO, J. M. 1987. *Toponimia de la cuenca de Pamplona: Cendea de Galar* (= *Onomasticon Vasconiae* 2). Bilbo: Euskaltzaindia.
- ___, SALABERRI, P. 1994. *Toponimia de la cuenca de Pamplona: Pamplona/Iruña* (= *Onomasticon Vasconiae* 12). Bilbo: Euskaltzaindia.
- KNÖRR, H., MARTÍNEZ DE MADINA, E. 2009. *Toponimia de Vitoria I/Gasteizko toponimia I: Ciudad/Hiria* (= *Onomasticon Vasconiae* 27). Euskaltzaindia.
- ___, MARTÍNEZ DE MADINA, E. 2009. *Toponimia de Vitoria II/Gasteizko toponimia II: Malizaeza* (= *Onomasticon Vasconiae* 28). Euskaltzaindia.
- KUNZE, K. 1945. *Namenkunde. Vor- und Familiennamen im deutschen Sprachgebiet*. München: Deutscher Taschenbuch Verlag.
- MITXELENA, K. 1961/1977. *Fonetika historica vasca* (= *ASJU*-ren gehigarriak 4). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ___ 1964/1990. *Textos arcaicos vascos* (= *ASJU*-ren gehigarriak 11). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ___, YRIGARAY, A. 1955. "Nombres vascos de persona", *ASJU*, 11, 107-127.
- MUJIKA, L. M. 1989. *Euskal toponimiazko materialeak (II, III, VII, VIII, XI, XIV, XVIII)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ___ 2005. *Ipar Euskal Herriko toponimia tipia I: Hauze, Gotañe-Iribarne, Domintxine, Donaixti-Ibarre, Arruta-Sarrikota, Heleta*. Donostia: Hiria.
- ___ 2007. *Ipar Euskal Herriko toponimia tipia II: Ezpeleta, Sara, Urruña*. Donostia: Hiria.
- ORPUSTAN, J.-B. 1984/1991. *Toponymie Basque*. Presses Universitaires de Bordeaux.

PERURENA LOIARTE, P., SALABERRI ZARATIEGI, P., ZUBIRI LUJANBIO, J. J.
2011. *Goizuetako etxeen izenak*. Iruñea: Pamiela.

SALABERRI ZARATIEGI, P. 2003. *Euskal Deiturategia: Patronimia*. Bilbo: UEU.
205-207.

___ 2006. “Nafarroako euskal oikonimiaz”, *ASJU*, 40, 865-893.

___ 2009. *Izen ttipiak euskaraz*. Bilbo: Euskaltzaindia.